




Zerbitzuetako sektorean langileen %80ak baldintza kaskarretan egiten du lan



LAN PREKARIETATEA

“Lana duten milaka lagunek egunero pairatzen duten egoera, patronalak agindu eta gobernuek lan erreforma eta legeen bidez ezartzen dutena”

ALTERNATIBA

“Kapitalismoaren gaitz honi aurre egiteko erarik onena informatzea, antolatzea eta ez etsitzea da; borrokatuz lortzen da irtenbidea!”

Azken hilabeteotan, zerbitzuetako sektoreko LABen dozenaka ordezkari landu dute Hego Euskal Herri osoan jendarteari arduratzen dion gaia: lanean ematen den prekarietatea. Inkesten bidez egin da, hots, guk hitz egin baino, galdetu eta aditu egin dugu; 3.369 pertsona inplikatu dira talde-ariketa honetan.


Kalera irten gara ere, gizarte-arazo handi hau, lanean ematen den prekarietatea alegia, ikusgarri egin nahian. Horrela, maiatzaren 28an, Bilbon, milaka langilek salatu zuten prekarietatea, LAB sindikatuarekin batera; ekainaren 1an zerbitzuetako ehunka ordezkari, Iruñean, Bilbon, Gasteizen eta Donostian mobilizazioak egin ditugu prekarietate gehien ematen den enpresen aurrean patronalak, gobernua eta parlamentuak interpelatuz, haiena baita erantzukizuna.

Benetan garrantzitsuak datuak dira, eta ondorioz, baita sindikatu gisa hartu behar ditugun erabakiak ere. Lanean bizi dugun prekarietatea politikarien agendan lehen mailako arazo bihurtzea lortu behar dugu, prekarietateatik atera ezean, bizitza okerrago batera zigortuko gaituztelako, etorkizuneko belaunaldiak hipotekatuko ditugulako eta bidegabekeriei erantzuteko gaitasuna mugatuko digutelako.

Inkestaren ondorio nagusiak

Inkesta bete duten 3.369 langiletatik %80ak adierazi du lan baldintza prekarioetan egiten duela lan eta %90ak baino gehiagok ondorengo neurriak eskatzen ditu prekarietateatik ateratzeko:

- › **Gutxieneko soldata: 1200 €/garbiak**
- › **35 orduko asteko lanaldia**
- › **Sektoreko hitzarmenak berezkoak eta erreformatik babestuak**
- › **Lanaldi partzialeko kontratazioak egin ahal izateko gutxieneko orduak ezartzea**
- › **Enpleguaren egonkortasuna bermatzeko neurriak**
- › **Lan ikuskaritzak lantokietan ematen diren benetako lan baldintzak eraginkortasunez kontrolatzea**




1.200 euroko gutxieneko soldatak eta 35 orduko jardunaldiak zure prekarizazio egoera arinduko luke?

Lan orduen gainetik lan egitera behartzearen aurrean zainketa eta zigorrak areagotuko zenituzke?

Prekarietatearen aurka ezinbestekoa al da bertako sektoreko lan hitzarmenak izatea eta hauek lan erreformaren ondorioetatik babestea?


Uste duzu lanaldi partzialetako ordu osagarriak arautu behar direla konplementarioen erabilpena eta hauek kontsolidatzeko epeak zehaztuz?

Egungo araudiarekin kaleratzean libreak dira. Bertako erakundeek lanean gure egonkortasuna bermatzeko neurriak hartu beharko lituzkete?



Zertan nabaritzen duzu gehien prekarietatea?

- Behin-behinekotasuna
- Soldata
- Malgutasuna
- Lanaldia
- Lanaldi partziala
- Orduategia
- Besteak



ZERBITZUETAKO SEKTOREKO PREKARIETATEAREN AURKA LANGILEOK #bideakBatuz



<https://www.youtube.com/labsindikatu>

Egindako guztiarekin indartuta amaitu nahi dugu urte sindikala, kemena berrituta eta datorren urte sindikalerako konpromisoz beteta. Badakigu ez dugula laneko prekarietatearekin egun batetik bestera amaituko, are gehiago, ziurta dezakegu borroka luzea eta latza izango den arren, motibagarria ere gertatuko zaigula: ondo bitiztea, hurrengo belaunaldientzat etorkizun hobeagoa uztea eta bere burua zanpatzen uzten ez

duenaren harrotasuna berreskuratzea saiakera merezi duten hiru helburu dira.

LAB abian da lanean ematen den prekarietatearekin amaitzeko; espero dugu bidaide izatea, nork bere kabuz bakarrik ez dezakeelako egin. LAB da eta izango da, helburu honetan, denok erabil dezakegun bitarteko eraginkorra.

Batu zaitez gurera!



www.lab.eus